

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuari online bidez egindako informazio geografikoaren eskaera % 40 igo zen 2013an

Urte honetan zehar, SITNAk eta toki-erakundeek tresna horiek udal-eremuan eskaintzen dituzten potentzialtasunak aztertuko dituzte

Jueves, 22 de mayo de 2014

Foru Gobernuaren informazio geografikoaren webguneek, [Nafarroako Geoataria](#) eta [IDENA](#) (Nafarroako Espazio Datuen Azpiegitura), beren datu-zirkulazioaren bolumena % 40an handitu zuten 2013. urtean; hala, 3,5 milioi megabyte-etik 4,9 milioira pasada.

Bestalde, bi atari

horietako datu-eskaerak % 10 igo ziren iaz, IDENAn batez ere, ia 79 milioi kontsultarekin. Aurreko urteetan bezala, eskaera handieneko informazioa katastroari buruzkoa da. Datu horiek [SITNA](#)ren Koordinazio Batzordeak (Nafarroako Lurralde Informazioko Sistema) berriki onartutako urteko memoriatik ondorioztatzen dira, Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilari Javier Morrás buru dela.

2013an zehar IDENAn 21 maila gehiago sartu dira Nafarroako informazio geografikoarekin, esate baterako, Laborantza eta Aprobetxamenduen Mapa berria, ehiza-barrutiak, hondakin-sarea edo Argako ibai-parkea. Gainera, beste 21 bat maila eguneratu dira, adibidez: basoko pistei dagozkienak, ur-azalera, osasun-zonifikazioa edo meteorologia-estazioak. Gaur egun, IDENAn barnean Nafarroari buruzko askotariko informazio geografikoa dago 563 datu-multzotan batuta, 2012 an baino 59 gehiago, eta hainbat formatutan deskarga daitezkeen 640 fitxategitan; iaz, 571 izan ziren.

Gogoratu behar da, Nafarroako Geoatariak biztanleari euskarri geografiko bat eskaintzen diola haren beharretarako. IDENAK, aldiz, foru-lurraldeari buruzko informazio publiko guztia batzen du operagarritasun arteko nazioarteko estandarraren azpian.

Bestalde, iaztik aurrera, Nafarroako Gobernuak ere gailu mugikorretarako informazio geografikoa ematen du "[SITNA zure mugikorrean](#)" aplikazioaren bitartez. Tresna hori Android edo iOS sistema eragileen bidez erabil daiteke, Espainiako lau telefono adimentsuetatik



SITNAren Koordinazio Batzordearen bilkura, Morrás kontseilaria buru dela.

(*smartphone*) hirutan instalatuta daudenak.

2013an zehar, Nafarroako Gobernuak Foru Komunitateko lurraldeari buruz duen informazio geografiko guztia ETRS89 erreferentzia orokorreko sistema geodesikorako [migrazio-prozesua amaitu](#) zuen, Europar Batasun guztirako eredutzat hartutakoa. Aldaketa horrekin tokiko erreferentziako aurreko sistema geodesikoa alde batera utzi zen, ED50, eta hura egungo koordenatuen zehaztasun-sistemek gainditu zuten eta GPS gailuen gero eta erabilera handiagoko zabalkundeak.

2014rako jarduera-ildoak

SITNAren Koordinazio Batzordeak ere 2014rako jarduera-plana erabaki du Nafarroako Jauregian egindako bilkuran; bertan, SITNAk udal-eremuan eskain ditzakeen potentzialtasunen azterketa azpimarratzen da, toki-erakundeekin batera.

Gainera, lan-ildoak garatuko dira Nafarroako unibertsitateekin informazio geografikoko sistemen arloan prestakuntza-eskaintza bat egiteko asmoz.

Urte honetarako beste proiektu batzuk honako hauek dira: Nafarroako informazio geografikoa arautuko duen foru-araudia egitea; informazio-maila berriak jasotzea; posta-helbideen kudeaketa garatzea –Nafarroako higiezinaren helbide guztiak jasoko ditu; eta talde profesional bat sortzea. Talde horrek Nafarroatik

laguntza emango du INSPIRE zuzentaraua abian jartzen; zuzentarau horren helburua Europa guztirako